

BALIABIDEEN ETA ZERBITZUEN GIDALIBURUA

# Emakumeen aurkako indarkeria matxista: zer egin dezakezu?

Deitu **900 840 111**  
-ra eta informa zaitez



EUSKERA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERINTASUN, JUSTIZIA ETA  
GIZARTE POLITIKETAKO ZALAZA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES



Lan honen bibliografia-erregistro bat Eusko Jaurlaritzaren  
Bibliotekak sareko katalogoan kontsulta daiteke:  
[www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua](http://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua)

Argitalpena: 1.a, 2023ko azaroa

Berrinprimaketa: 1.a, 2024ko martxoa

Ale kopurua: 80.010 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu  
Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno  
Vasco

Donostia-San Sebastian, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua: Bell Comunicación

Inprimaketa: Gráficas Irudi, S.L.

L.G.: LG G 764-2023

**GIZARTE ZERBITZUEN ZUZENDARITZA**  
**Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila**  
**EUSKO JAURLARITZA**  
**Donostia-San Sebastian, 1**  
**01010 Vitoria-Gasteiz**

[www.euskadi.eus/serviciossociales](http://www.euskadi.eus/serviciossociales)

# AURKIBIDEA

Emakumea baldin bazara eta indarkeria matxista jasaten ari bazara edo susmo hori baldin baduzu...	04
Gogoratu ez zaudela bakarrik	06
Zer egin, emakumeen aurkako indarkeria matxista jasaten ari bazara edo susmo hori baldin baduzu?	08
Arriskuan baldin bazaude, deitu 112ra, edo joan gertuen duzun ertzain-etxera edo udaltzain-etxera!	10
Lesioak badituzu, joan zaitez zure osasun-zentroko edo ospitaleko larrialdi-zerbitzura, edo deitu 112 telefonora!	12
Informazioa nahi baduzu, deitu 900 840 111 telefonora! Profesionalekin hitz egingo duzu, berehala, beste inork jakin gabe, eta izenik eman gabe.	14
Norbaitek aurrez aurre kasu egitea behar baduzu, hitzordua eska dezakezu zure udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuarekin edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin (BLZ).	16
Zerbitzuak eta baliabideak (laguntza ekonomikoak, etxebizitza, lana eta prestakuntza, hezkuntza, etab.)	19



**DEITU 900 840 111-RA ETA INFORMA ZAITEZ**

**EKIM, "Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko informazio-webgunea" <https://ekim.euskadi.eus/>**

# Nola jakin emakumeen aurkako indarkeria matxista jasaten ari zaren?

**Erasotzailea zure bikotekidea edo bikotekide ohia al da?** Izan ere, indarkeria ez da, soilik, eraso fisikoak edo sexualak jasatea; zure bikotekideak zure aurka indarkeria erabiltzea da indarkeria.

- **Kontrolatu egiten zaitu:** etengabe ari zaizu deika edo whatsappak edo mezu elektronikoak bidaltzen; sare sozialetan dituzun profiletan begira ibiltzen da; azalpenak eskatzen dizkizu ea nora zoazen eta norekin, edo zer egiten duzun edo zer esaten; dirua kontrolatzen dizu; edo nola janzten zaren kontrolatzen du, eta daramazun arropa gustatzen ez bazaio, aldatzeko eskatzen dizu.
- **Bakartu egiten zaitu:** ez zaio gustatzen zuk lagunik edukitzea, ez du nahi zuk zure familia ikustea, edo jende aurrean mespretxatu egiten zaitu, etengabe ari zaizu garrasika eta agiraka, errua beti zurea omen da, dena gaizki egiten omen duzu.
- **Ikaratu egiten zaitu:** beldurra diozu; iraindu egiten zaitu edo lotsagarri utzi; mehatxatu egiten zaitu: bere burua hilko omen du, edo seme-alabekin geratuko omen da; zure dokumentu garrantzitsuak hartu eta ezkutatu egiten dizkizu (pasaporteak, banku-libretak...); nahi ez dituzun gauzak eginarazten dizkizu, xantaia egiten dizu, eta abar.
- Laguntza behar duzu egunerokorako: elikatzeko, medikazioa hartzeko, zure burua garbitzeko, joan-etorriak egiteko, etab, baina horretarako **zaintza eta laguntasunik gabe uzten zaitu.**





**Familiako edo inguruko gizonen batek indarkeria fisikoa**, psikologikoa edo sexuala eragiten dizu edo eragin izan dizu, **edo pisukide edo egoitzako gizonen batek, edo zaintzaileak, edo tutoreak edo baita ezezagun batek ere.**

**Sexu-indarkeria jasaten baduzu edo jasan baduzu (edonolakoa), edo salerosketa, sexu-esplotazioa, genitalen mutilazioa, ezkontza behartua, jazarpena, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, nahitaezko esterilizazioa...**

Sentitzen baduzu **zure lan-ingurunean** jazarri egiten zaituztela sexualki edo emakume izateagatik. **Indarkeria da, halaber, zuri min egitearren zure hurbilekoen aurka egiten dena**, bereziki zure seme-alaben eta beste senitarteko batzuen aurka (indarkeria bikarioa).

## Gogoan izan...


**Emakume guztiok** dugu **eskubidea** indarkeria matxistarik gabe bizitzeko: ez izan beldurrik administrazio-egoera irregularrean bazaude ere.

**Zeu zara zure bizitzaren jabe** eta zure gorputzaren jabe, eta zeuk erabakitzen duzu zer egin nahi duzun.

Zure **seme-alabak** askoz hobeto egongo dira zu hobeto bazaude: kontuan hartu haiek ere indarkeria horren zuzeneko biktimak direla.

**EZ esateko eskubidea duzu;** beraz, izan konfiantza sentitzen duzun horretan; zerbaitek ez bazaitu konbentzitzen, ez izan zalantzarik: Esan EZ!

Konfiantzazko norbaiti zer gertatzen zaizun esatea bide egokia da aurrera eragiteko. **Bilatu babesa** lagun batengan (neska zein mutil), zure familiako norbaitengan, auzoko norbaitengan edo profesional batengan.






Prozesu gogorra izaten da; batzuetan ondo egongo zara eta beste batzuetan gaizki; inoiz, **atzeraka ere egingo duzu**, baina merezi du indarkeriarik gabe bizitzea.

Zu orain zauden bezala emakume asko daude edo egon dira, edozein dela ere adina, egoera soziala, egoera fisikoa, sentsoriala, kognitiboa, edo emozionala, edo nazionalitatea eta etnia.

**DEITU 900 840 111 -RA ETA INFORMA ZAITEZ**

## ... ez zaudela bakarrik




# Zer egin emakumeen aurkako indarkeria matxista jasaten ari bazara edo susmo hori baduzu?

**Arriskuan bazaude, deitu 112ra! ERTZAINZA edo UDALTZAINGOA** berehala joango zaizu, eta zure kasurako egokienak diren neurriak abiaraziko ditu edo, bestela, '112 SOS Deiak' app-ean sar zaitezke ([https://www.ertzaintza.euskadi.eus/lfr/web/ertzaintza/aplicacionmovil](https://www.ert zaintza.euskadi.eus/lfr/web/ertzaintza/aplicacionmovil)), baldin eta aurretiaz deskargatuta baduzu, eta hor aukera izango duzu komunikatzeko, bai hitzez, bai mezu bidez (baldin eta une horretan ezin baduzu hitz egin edo entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasuna baduzu). Mugitzeko arazoak badituzu, jakinarazi.

**Lesio fisikoak edo psikikoak badituzu**, edo susmoa baldin baduzu nolabait indarkeria ari zarela jasaten, **joan zaitez OSPITALERA edo zure osasun-zentzora**, eta haiei azaldu nork zer egin dizun. Txosten medikoaren kopia emango dizute, eta lesioen partea epaitegira bidaliko dute. Hitzordua eskainiko dizute zure medikuarengana edo familia-medikuarengana joateko.

Jasaten duzun indarkeria hori profesionali zuk zeuk ahoz azaldu nahi badiezu, ondo uler dezaten zer ari zaren bizitzen, eta **BESTE INORK EZER JAKIN GABE**, deitu **900 840 111** telefonora (24 orduko zerbitzua). Zerbitzu horretan, entzun egingo dizute, lagundu, eta, telefonoz, azalduko dizute zer eskubide dituzun, zer baliabide eta zerbitzu.







**Zure kasua profesionaleri AURREZ AURRE planteatu nahi badiezu,** hitzordua eska dezakezu **zure udaleko edo mankomunitateko gizarte-zerbitzuetan,** eta han esango dizute nola iritsi eskura dituzun baliabide eta zerbitzu guztietara (aldi baterako ostaturia, behar izanez gero; laguntza psikologikoa; aholkularitza juridikoa, eta abar), eta laguntza eta aholkua emango dizute zure bizi-kalitatea hobetzeko hartu beharreko erabakiei buruz.

Zure lurralde historikoko **Biktimari Laguntzeko Zerbitzura (BLZ)** ere jo dezakezu (**Araba: 900 180 414; Bizkaia: 900 400 028, eta Gipuzkoa: 900 100 928**). Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu horrek behar duzun informazioa eta laguntza emango dizu (laguntza soziala, juridikoa eta psikologikoa).

**Eusko Jaurlaritzak  
eta beste erakunde  
batzuek zure eskura  
jartzen dituzte zerbitzu  
eta baliabide horiek.** !



## Arriskuan bazaude...

**Deitu 112 zenbakira edo joan hurbilen duzun ertzain-etxera edo udaltzaingoaren komisariara edo kontaktatu 112 SOS DEIAK! aplikazioarekin. (Aplikazio hori egokituta dago entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasuna duen emakumeentzat). Desgaitasunik baldin baduzu edo laguntza behar baduzu joan-etorriak egiteko, hori ere jakinarazi.**


Beti egingo dizu kasu.

Eguneko **24 orduetan** hartzen ditu salaketak.

Eskubidea duzu abokatu bati dei diezaioten, hark, gero, **salaketa** jartzen lagun diezazun (nahi baduzu), edo **babes-agindu bat** eskatzen lagun diezazun, bai neurri penaletarako (prebentziozko espetxeratzea, urruntze-agindua, komunikatzeko debekua, etab.), bai behin-behineko neurri zibiletarako (familia-etxebizitzaren erabilera, seme-alaben zaintza eta bisita-arabidea, mantenu-pentsioa, etab.).

Udaleko edo aldundiko **gizarte-zerbitzuekin** jarriko da harremanetan, zuk nahi izanez gero; batez ere, **ostatua behar baduzu berehala**.

Jarraipen pertsonalizatua eskainiko dizu, eta babes-neurri egokienak hartuko ditu, daukazun arrisku-mailaren arabera.






Aplikazio bat eskainiko dizu, zure mugikorrean deskargatzeko, arriskuan zaudenean zuzenean konektatu zaitezzen zure ertzain-etxearekin eta **900 840 111** telefonoarekin, Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntzeko Zerbitzua.

Eta '112 SOS Deiak' app mugikorrera deskargatzen baduzu (<https://www.ertzaintza.euskadi.eus/lfr/web/ertzaintza/aplicacionmovil>), larrialdi batean Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin komunikatu zaitezke, hitzez edo mezuz (une horretan ezin baduzu hitz egin edo entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasuna baduzu). **Telefonoko GPS bilagailua gaituta eduki, non zauden jakin dezaten, behar izanez gero ere!**

## ... deitu 112-ra!

**Arrisku-egoeran bazaude, ez izan zalantzarik: laguntza bila atera, auzokoengana edo kalean dabilen jendearengana.** 

## Lesioak badituzu...


**Lesio fisikoak edo psikikoak baldin badituzu** edo uste baduzu izan ditzakezula, joan zaitez OSPITALEko larrialdi-zerbitzura, eta haiei azaldu nola egin dituzun.

**Sexu-indarkeria jasan baduzu:** ez urik edan, ez joan komunera, ez dutxatu eta ez aldatu arropa. Ginekologia zerbitzuak eta auzitegi-medikuntzako zerbitzuak elkarrekin artatuko zaituzte.

**Txosten medikoaren kopia** emango dizute. Salaketa jarritz gero, baliagarri izango duzu epaiketean.

Handik, **dagokion epaitegira bidaliko dute lesioen partea. Gizarte-zerbitzuekin harremanetan** jarriko zaituzte, behar izanez gero.

Arriskuan baldin bazaude, **Ertzaintzari eskatuko diote joateko zu zauden lekura.**





**Laguntza medikoa  
behar baduzu,  
osasun-zentro batera  
lagunduko dizute.** ! ●

**Desgaitasunik eta  
laguntza-premiarik  
behar baduzu,  
jakinarazi.** ! ●





## Informazioa nahi baduzu...

...hots egin telefono honetara: **900 840 111**; adituak dira indarkeria matxista jasan duten emakumeei kasu egiten. Deitu lasai, baldin eta:

Si estás **bloqueada, confundida o asustada.**

Si tienes **dudas, sientes vergüenza o miedo.**

Si quieres ser escuchada y verbalizar tu situación **de forma anónima.**

Si quieres informarte y orientarte para ser tú quien toma **tus propias decisiones.**

Si quieres **ser acompañada** por profesionales especializadas en la atención de violencia machista para poder: poner nombre a lo que te pasa, transmitir tus vivencias sin sentirte cuestionada, valorar diferentes alternativas para enfrentar la situación y sentir que no estás sola.


Si quieres recibir información sobre todos los derechos, recursos y servicios a tu disposición.

**La Dirección de Servicios Sociales del Gobierno Vasco pone a tu disposición este servicio telefónico especializado que atiende a TODAS las mujeres víctimas de violencia machista, y también a FAMILIARES O A PERSONAS ALLEGADAS Y A PROFESIONALES que demanden información.**

Zerbitzua berehalakoa da, anonimoa, konfidentziala eta doakoa, eta **ez du arrastorik uzten** telefono-fakturan.

**Eguneko 24 orduetan** erabil daiteke, urteko 365 egunetan.

**24orduz!**





Han lan egiten duten emakumeak profesionalak dira; adituak indarkeria matxistako egoeretan kasu egiten.

Zerbitzuak **51 hizkuntzatan** erantzuten du, eta prestatuta dago **entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasuna dutenak** artatzeko, kanal espezifiko baten bitartez: <https://satevi.svisual.org/>

Emakumeen aurkako indarkeria matxista orori egiten diote kasu (indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa...), besteak beste:

- **Bikotekide edo bikotekide ohiarena (genero-indarkeria),**
- **familiako edo inguruko gizon batena,**
- **sexu-askatasunaren aurkako delituak (erasoa, exhibizionismoa, prostituzio behartua, emakumeen eta nesken salerosketa, genitalen mutilazioa eta ezkontza behartuak, besteak beste),**
- **edo lanean (sexu-jazarpena eragitea edo norbait sexuagatik jazartzea).**

# Aurrez aurreko arreta behar baduzu...

**Hitzordua eska dezakezu zure UDALEKO edo MANKOMUNITATEKO gizarte-zerbitzuetan, eta hor honako hau eskainiko dizute:**


- **Laguntza eta aholkuak**, zer pasatzen zaizun aztertzeko eta zure bizi-kalitatea hobetzeko zer erabaki hartu behar dituzun pentsatzen laguntzeko.
- Behar izanez gero, azalduko dizute **nora jo eta nola iritsi** beste baliabide edo zerbitzu batzuetara: aldi baterako ostatua, zerbitzu juridikoak, psikologikoak, sozioedukatioak, etxebizitzarakoak, enplegurakoak, genero-indarkeriaren egiaztapen administratiboa etab.
- Zure **eskubideei** buruzko informazioa.

**Hitzordua eska dezakezu BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUAN (BLZ); zerbitzu horiek GASTEIZ, BILBO, BARAKALDO ETA DONOSTIAKO justizia-epaitegietan daude.**

Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzak zure eskura jartzen du zerbitzu hau; doakoa da, konfidentziala, indibiduala eta pertsonalizatua, bai salaketa jarri baduzu, bai jarri ez baduzu.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan, honako hau lor dezakezu:

- **Salaketa jarri aurretik, nondik nora jo azalduko dizute**, eta, gero, prozesu guztiaren jarraipena egingo dute, amaitu arte.
- Zure kasu zehatzean zer egin daitekeen azalduko dizute
- **Informazioa emango dizute, izapide judizialak** egiten lagundu eta eskubideak azalduko (doako laguntza juridikoa, laguntza ekonomikoak eta baliabide psikosozialak).
- **Laguntza psikologikoa eta soziala**, behar izanez gero.
- Gai hauetaz arduratzen diren osasun-zerbitzu egokietara bidaliko zaituzte.
- **Epaiketara lagunduko dizute.**
- Informazio gehiago, hemen: [www.justizia.eus/victima](http://www.justizia.eus/victima)





## Hitzordua eskatzeko:

### Álava-Araba



900 180 414 (doakoa) eta 945 00 48 95.  
Justizia Jauregia, Gasteiz etorbidea 18. 01008 Gasteiz

### Bizkaia:

900 400 028 (doakoa) eta 94 401 64 87  
Justizia-jauregi ondoan, Ibañez de Bilbao, 3-5 behe, 48001 Bilbo



94 400 10 31.  
Bide Onera Justizia Jauregia z.g., 48901 Barakaldo

### Gipuzkoa:



900 100 928 (doakoa) eta 943 00 07 68  
Justizia-jauregia, Ama Teresa Kalkutakoaren plaza 1. 20012 Donostia / San Sebastián

### ORDUTEGIAK:

Astelehenetik ostiralera:

09:00 - 14:00

Astearte eta asteazkenetan:

16:00 - 18:30

Uztaila eta abuztua:

09:00 - 14:30

**EMAKUMEEN ETXEAK ETA ELKARTEAK** ere hortxe dituzu, prebentzioa lantzeaz batera, badakite indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeei kasu egiten ere. Horrelako elkarteetan, laguntza eta informazioa emango dizute dituzun eskubideen inguruan, eta zure burua indartzeko prozesuan lagun zaitzakete.

Desgaitasunik baldin baduzu (eta emakumea bazara), desgaitasuna dutenentzat erreferenteak diren erakundeetara ere jo dezakezu.

Gainera, elkarten bidez zure eskariak entzun egingo dira **EMAKUNDE**ren Aholku Batzordean eta beste solasaldi-gune batzuetan.

Emakunderen web-ean, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazio espezifikoak lor dezakezu: baliabideen mapa, datuak, txostenak...; halaber, ahalduz gero eta parte-hartzeari buruzkoak: EAEko Elkarten Gida, ahalduz gero eskolak...

**emakunde@euskadi.eus**

**<http://www.emakunde.euskadi.eus> 945 01 67 00**



**EKIM, Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko informazio-webgunea:** Webgunean emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko informazioa aurkituko duzu, baita eskura dituzun baliabide eta zerbitzuak ere.

**<https://ekim.euskadi.eus/>**



Ahalduz gero prozesu jarraitua da; horregatik, autodefentsa feministari eta ahalduz gero buruzko tailerrak eta bestelako batzuk lagungarri izango dituzu bizitza hobetuko dizuten erabakiak hartzeko. Tailer horiek eskaintzen dira bai elkarten bidez, **BAI UDALETAKO ETA FORU ALDUNDIETAKO BERDINTASUN-ARLO**en bitartez.



# Zerbitzu eta baliabide hauek lor ditzakezu

## Diru-laguntzak:

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak ordainketa bakarreko laguntza kudeatzen du. Laguntza hori jasotzeko eskubidea duzu, baldin eta:

- Bikotekideak edo bikotekide ohiak bazaitu erasotu
- Harekiko harremana betiko amaitu baduzu
- Genero-indarkeriaren biktima-egiaztagiria baldin badaukazu (indarrean)
- EAeko erroldan gutxienez 6 hilabeteko antzinasuna baduzu
- Ezarrita dauden diru-sarrera maximoak gainditzen ez badituzu
- Ez baduzu lanik egiten baina ez badaukazu genero-indarkeriaren GEA (Gizarteratzeko Errenta Aktiboa), [violenciacontramujeres@euskadi.eus](mailto:violenciacontramujeres@euskadi.eus)

## **Bizitzeko Gutxienezko Diru-sarrera (BGDS) edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eskatzen baduzu:**

- Ez da beharrezkoa izango orain dela urtebete gutxienez osatu izana bizikidetz-unitatea.
- Nahikoa da 18 urte izatea.
- Ez dizute erroldan antzinasunik izatea eskatuko.
- Emango dizute, bai genero-indarkeria jasan baduzu, bai etxeko indarkeria, bai gizakien salerosketa bai sexu-esplotazioa.
- Indarkeria-egoeraren ondorioz zure ohiko bizilekua utzi behar izan baduzu eta senide, lagun edo beste norbaiten etxera joan behar izan baduzu, zurekin bizi diren beste pertsona horien diru-sarrerak ez dira zure sarreratzat hartuko denbora batez.
- DSBE prestazio baten titularra izateak aukera emango dizu zure inklusio-prozesuan laguntza indibidualizatua jasotzeko, genero-indarkeriaren arloko tutore batengandik.

## Hezkuntzaren alorrean:

Hezkuntzaren arloan, neurri hauek dituzu eskura:

- Unibertsitate-tasak ordaindu beharrik ez dute ez genero-indarkeriaren biktimek, ez haien kargura dauden eta haiekin bizi diren 25 urtetik beherako seme-alabek.
  - Unibertsitateaz kanpoko ikasketetarako hezkuntza-beketarako baldintza akademikoetan salbuespen batzuk egingo zaizkizu.
  - Unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko bekan ere salbuespen akademikoak.
- Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeek ikastetxez aldatzea eskatzen badute, espediente akademiko lekualdatzea.

## Ostatua:

Indarkeriaren ondorioz familia-etxebizitza utzi behar izanez gero, **harrera-zentro batera joateko** eska daiteke, udaletako edo foru aldundietako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan zuzenean, edo Ertzaintzaren bidez, zentro mediko baten bidez, eta abar.

## Etxebizitza:

Baldin eta genero-indarkeriaren biktima bazara eta **Etxebiden** alokairurako etxebizitzaren eskatzaile gisa **inskribatzen bazara**.

- 4 puntu gehiago izango dituzu, eta zure eskaera etxebizitza-premia bereziizenerako kupo lehenetsian sartuko da.
- Inskribatu egin zaitezke nahiz eta diru-sarrerarik izan ez duzula egiaztatu, edo nahiz eta eskatzen den gutxienera iritsi ez.
- Ez duzu nahitaez erroldatuta egon behar eskatzen duzun udalerrietan.
- Kasu batzuetan, etxebizitza bat jabetzan izan arren, baduzu zerbitzu horretara jotzeko aukera.

Harrera-zentro batean bazaude eta ez baduzu lortzen etxebizitza batean sartzea, zure udaletik edo aldunditik, **salbuespenez, alokairurako etxebizitza bat zuzenean zuri esleitzeko eska dezakete**, baldin eta baldintza espezifiko batzuk betetzen badituzu.

Eusko Jaurlaritzaren programaren bateko alokairu-etxebizitza batean bizi bazara, **aldatzeko eska dezakezu, baldin eta arriskuan zaudela jotzen bada**.

[https://www.etxebide.euskadi.eus/webetxe00-content/eu/contenidos/informacion/documenta\\_reg\\_etxeb/eu\\_def/index.shtml](https://www.etxebide.euskadi.eus/webetxe00-content/eu/contenidos/informacion/documenta_reg_etxeb/eu_def/index.shtml)

## Lana eta prestakuntza:

Lana bilatzeko arreta eta aholkularitza indibiduala behar baduzu, genero-indarkeriaren arloko tutore bat izango duzu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko bulego bakoitzean. Galdetu tutore horri buruz.

Ibilbide pertsonalizatu bat eskainiko dizute, lan-merkatuan sartzea eta prestakuntza-ikastaroak egitea errazteko.

info+:  
Emakumeen aurkako  
indarkeria matxistari buruzko  
informazio-webgunea  
<https://ekim.euskadi.eus/>



**zuzenean** Telefonoa: 012  
herritarrei arreta emateko zerbitzua  
servicio de atención a la ciudadanía